

Ezpalak

JON TORNER

'Egunkaria, amets baten egia' liburua kalean da

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO (EHU) Informazio Zientzietako zenbait irakasle eta irakasle ohiren iritzi artikuluekin osatutako *Egunkaria. Amets baten egia* liburua argitaratu du Tarttalok. Txema Ramirez de la Piscinak, Teresa Agirrezabaldegik, Pedro Ibarrak eta Ramon Zalok parte hartu dute lan horretan. "Hama-bi urtez egia bihurturik hain ederki funtzionatu zuen proiektuaren ametsaren" inguruko gogoetak bildu dituzte. Aurrera begira beste liburu bat argitaratzeko asmoa adierazi dute egileek, *Egunkariaren* epaiketari helduko diona.

Chillida Lantoki irekiko dute Legazpin

LENBUR fundazioaren eta Chillida familiaren eskutik Chillida Lantoki gunea irekiko dute Legazpiko (Gipuzkoa) Patricio Elorza S.A. paper lantoki zaharrean, hila-ren 21ean. Gune horretan ez dira Chillidaren obrak erakutsiko, baizik eta "horiek egiteko inguratu zuen guztia", dio Ignacio Chillidak, Eduardo Chillida artista zenduaren semeetako batek. Oraingo argazki erraldoiez hornitzen ari dira pabiloia, eta asmoa dute Chillidak bere obrak egiteko erabili zuen makinaria bertan paratzeko. Paper lantoki zaharra erakusketarako egokituia izan da baina antzinako funtzioaren ezaugarriak mantentzen ditu. Etorkizunean erakusketa aretoak, laborategiak, dokumentazio zentroa, bulegoak, dendak eta jatetxea joango lirake leku horretan.

Pello Lizarralde

idazle zumarragarrak 2002an argitaratutako *Larrepetit* eleberriaz mintzatu-tuko da ekainaren 12an Hendaiko Mediatekan, VI. Literatur Mintzaldian. Akelarre elkarteak antolatutako hitzaldia arratsaldeko 18:00etan hasiko da.



JOSU SANTESTEBAN

Kerobia taldeak *Ontziak* diskoa kaleratu du, eta webgunean (<http://ontziak.kerobia.com>) zintzilikatu dute, edonork jaisteko moduan. Trilogia baten amaieratzat jo dute eta aurreko bi diskoak ere sarean jarri zituzten bere garaian doan jaisteko. "Trilogiaren ildoari jarraituz, Creative Commons lizentziarekin aterako diska da eta taldeak SGAEtik kanpo lan egitearen apustuari gogor ekin dio", adierazi dute. Ezer ordaindu behar ez den arren diskoa jaisteko, donazioa egiteko aukera ere ematen du webguneak.

● **Xabier Santxotena eskultoreak *Berrian***: «Museoetan, normalean, piezak baino ez dira egoten, baina ez da ohikoa izaten artista bera ere han egotea. Museoak, beti, artista hiltzen denean egiten dira; ni ez nago horretarako prest. (...) Museo batera joan, eta azalpenik gabe geldituz gero, jendea nahiko hotz gelditzen da. Museoetan maisulanak, Picassorenak, Pollockenak edo dena delakoarenak jarri, eta azalpenik eman ezean, hilobi baten pareko zerbait da erakusketa hori. Azalpenekin beste goxotasun bat du denak».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia